



**Itsasorako lehio,
tontorreko herri
Miaxirian duzu,
Aranoko berri**

**Arano historiaurrean - Aranoko lurretan barna
Arano, iruditan - Aranon ere badaude sendabelarrak
Garai bateko jostailuak - Herriko artista gazteak
Aranoarrak munduan - Bertsoak - Eta gehiago...**

**zenbaki
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.org

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Testuak:

Ainhua Ansa, Arantxa Ansa, Erramun Galparsoro, Imanol Egues, Iñaki Egurza, Jabier Legarreta, Maitane Legarreta, Oskar Gascon, Xabier Legarreta, Josu Sarobe, Lourdes Legarreta

Argazkiak:

Joxean Ruiz, Mikel Ruiz, Lourdes Legarreta, Xabier Legarreta, Jabier Ansa, Jabier Legarreta, Iñaki Egurza, Erramun Galparsoro, Leonet Oronoz familia, Ainhua Ansa, Maitane Legarreta, Maitane Sarobe, Oskar Gascon, Jon Zabala

**Aurkezpena**

3

**Arano historiaurrean**

4-5


**Aranoko lurretan barna**

6-8

1. Aranoko Kalbayua "Letariya"
2. Arano Herria - Beheko Herri - Suro - Arano Herria

Bertsoak

9

**Aranoko iruditan**

10-13

**Garai bateko jostailuak**

14-17

**Kapikua**

18

**Herriko artista gazteak**

19-21

**Herritar berriak**

22-23

**Aranoarrak munduan**
Leonet-Oronoz familia

24-25

**Aranon ere badaude sendabelarrak**

26-28

**Errezetak**

29

Txipiroi krepeak eta sagar tarta

**Zirikimilo**

30

**Denbora-pasak**

31

**Teilatuak lekuko**

32



Itsasorako lehio, tontorreko herri Miaxirian duzu, Aranoko berri



Esku artean duzu Miaxiria aldizkaria. Aranoarrek Aranon egindako aldizkaria. Gure herritik itsasoa ikusten da, eta horixe aipatu da askotan gure bereizgarri gisa. Eta egia da, itsasora bezala urrutira begiratzeko eta urrutikoa ederres-teko toki aproposa da gure herria. Baina guk begirada berta-bertan jarri nahi izan dugu, baditugu-eta bestelako bereizgarriak eta alderdi interesgarriak ere. Aranora begira jarri gara, eta baita aranoarrei begira ere: hemen garenak, eta hemendik alde egin behar izan dutenak; hemen jaioak, eta baita kanpotik etorri eta gutako bihurtu direnak ere.

Herri txikia dugu gurea, baina ez horregatik zer kontatua eta zer ikusia ez duena. Aldizkari honetako orriotan Aranok

eta aranoarrek erakuts ditzaketen hainbat kontu aurkituko dituzu: gure iragana, herriko irudiak, bertakoen eta bertakotuen pasadizoak eta bizipenak, mendiko ibilbideak, ohiturak, bertsoak, sendabelarren gaineko ezagutza...

Daukagunaren eta dakigunaren zaitxo bat orriotara ekartzen saiatu gara, eta baita denontzat aberasgarri izan den zerbait osatzen. Lan horretan hainbat lagunek parte hartu dute, eta aldizkariari izena emateko ere deialdi irekia egin, eta makina bat proposamen jaso genuen. Zuen proposamena egin zenuten guztiei, eskerrak eman nahi dizkizuegu, zinez. Aldizkari hau osatzeko ideia hauspotu eta indartu duzue, eta azkeneko emaitza edertu.

Eta aukeratutako izenaz zer esan? Miaxiria hainbeste gauzetarako erabili izan da eta gaur egun ere etxe guztietan erabiltzen dugu... Miaxiria aldizkaria ere "kabelaino" hitzez, kontuz, ipuinez, istorioz, argazkiz, marrazkiz... beteta dator! Izerdiz eta lanez bai baina batez ere ilusioz eginga dela esan daiteke! Mila esker lan hau egiten lagundu diguzuen guztiei, exari-exarian lortutako emaitza guztioi esker izan baita!

Aldizkarian aurkituko duzuen ez di-zuegu hemen xehe-xehe esango. Irakurtzen jarraitzera animatzen zaituztegu, eta espero dugu irakurketa horren bitartez, atsegina aurkitzeaz gainera, gure herria hobekixeago ezagutzeko eta are gehiago estimatzeko bidea ere izanen duzuela. On egin.

Arano historiaurrean



Mairu-baratzak.

Batzuetan ona da gogoratzeko arieta egitea, historiaz inguratuta bizi baikara, eta Arano ere ez da salbuespena.

Herri barrutik abiatzen da Errekalkoraino garamatzen pista eta bertan aurki ditzakegu Historiaurrekoak diren garai hartako hilobi zaharrak. Orduan ere ikusiko zuten gure arbasoek, Aranoko mendien tontorretatik, itsasoa. Herri honek badu, izan ere, harro egoteko motibo bat: gaur Nafarroa osatzen duten herri guztien artetik, Kantauri itsasoa herritik bertatik ikusten den bakarra da.

Aranoko mendietan pasa izan den edonork, izan artzaina, ehiztaria nahiz mendizalea, ikusi izan ditu hilobi hauek, askotan, duten historiaren aberastasunaz jabetu gabe; gure historiaren aberastasunaz jabetu gabe, alegia.

Burdin aroko hilobiak dira, garai hartan paraje hauetan bizi ziren bizilagunen hil ondoko errautsak lurperatzeko balio zutenak. Zirkuluan jarritako harriak dira eta haien erdian sartzen ziren errautsak.

Monumentu hauei deitzeko modu asko daude eta euskarazko deiturak honakoak dira: Harrespilak eta Jentil edo Mairu-baratzak. Guztiek ere “elkarren inguruan jarritako harri multzoa” adierazi nahi dute eta “baratza” hitzak ere esanahi berezia du, historiaurreko nekropoliak izendatzeko maiz erabilitako hitza izan baita. Berezia da, bestalde, baratza hitza izaki mitologiko hauei (maide, mairu edo jentilei) lotuta ikustea, monumentu hauen antzinatasuna eta jatorri “ezkutu” agerian utziz.

Cromlech deituraren jatorria, berriz, antzinako galeseratik dator (bertatik hartu zuen ingelesak ere). “Crom”-ek okerra esan nahi du eta “lech”-ek harri zapala. Horrela, “okerrean edo kurban jarritako harri zapalak” izango litzateke cromlech hitzaren esanahia.

Gure arbasoek jentil baratzak egiteko erabili zituzten harriei dagokionez, berriz, barruan kuartzitazko inklusioak dituen deskonposatutako kaliza erabili zutela esan behar dugu. Harri hau zuria

izanik, eta batez ere ilargi beteko gauean, errainua egiten du eta, jentil-baratzek duten forma borobilaz gogoratzen bagara, pentsa dezakegu ilargia gurtzeko egin zituztela forma hori zuten hilobiak. Ilargiak ere, teoria batzuen arabera, hildakoen argia esan nahi duela kontuan hartu behar dugu hemen.

Badaude beste teoria batzuk, historiaurreko hilobi hauek irudikapen zertiar bat izan ote daitezkeen diotenak. Izan ere, Goizueta eta Arano bitartean 26 mairu-baratz baino gehiago aurki ditzakegu, eta hauetako gehienak Errekalko inguruan ikus ditzakegu.

Gogoeta txiki hauek Arano eta bere inguruak suposatzen duen guztia ezagutzeko egokieran jartzen gaituzte. Ez da berandu inguratzen gaituen historia ezagutzeko eta gozatzeko, orain arte ailegatu zaizkigun historiaurreko monumentuak zaindaz eta hurrengoengana irits daitezzen saiatuz, eta egunetik egunera aldatzen eta osatzen doan historiaren harian parte hartuz.

Historiaurrearen interpretazioak herritarren ahotan

XX. mendean ikerketa zientifikoek bide asko ireki zituzten arkeologiaren arloan gizakiaren jatorria garbiago ezagutzeko erraztasunak emanez. Baina horren aurretik, memoria kolektiboak, lehen bizilagunak eta beren monumentuak ulertzeko toponimoak, ipuinak eta sineskerak gorde eta transmititu izan ditu belaunaldiz belaunaldi.

Historiaurrean, sineskera eta ipuin horiei kasu eginez, genio eta heroia giza-kiekin biziko ziren. Kobazuloetan jentilak, sorginak, Mari, lamiak... biziko ziren (Urnietan hortxe dugu Marizulo izeneko Neolito garaiko kobazuloa); era berean, historiaurrekoak direla badakigun monumentu asko beraiek eraikitakoak izango ziren; Trikuharri, "baratza" eta zulo asko ezagunak izango ziren han izaki mitologiko haiek gorde izango zituzten altxur eta errearengatik (urrutira joan gabe Lamiosin daukagu guk Beheko errotatik oso gertu, non han dena urre kolorekoa izaten zela aditzera eman baitzuten herritar batzuk egindako galdeketa batzuetan); arroka ikaragarri asko Sanson edo Roldan bezalako jentilek edo erraldoiek botatakoak izango ziren (Urnietako Buruntzan dagoen Aballarrik edo Urdaburuko tontorreko harriek badute Aranorekin zerikusia); Historiaurreko baratzak edo zirkulu itxurako hilobiak ere Mairuen baratza edo hilobiak izango ziren, jentilenak bestela... (mairu baratza edo jentil baratza deitzen diegu guk ere Aranon)...



Lamia.



LAMUSINGo putzua.

Kristautasunak izaki horien denen desagertzea ekarri zuen, hauek lurrazpiko toki ezkutuetan, kobazulo ilunetan, trikuharrietan... gordeko zirelarik. Nekazaritza hedatzen joan ahala, gaur egun ezagutzen dugun paisaia moldeatzen joango ginen eta horrela bukatuko zen aurreneko garai izugarri haren denbora.

Hasieran esan bezala, XX. mendean, historiaurrea hobe ezagutzeko bideak jarri ziren eta orain badakigu gure mairu-baratzek eta trikuharriek bestelako azalpenak badituztela. Hala ere, sineskera horiek ezagutzea ere ez da soberan, gure herrian noizbait historiari bai halabeharrez, baina batez ere istorioek gidatu zutelako gure jatorria ezagutzeko eta gure ingurua errespetatzeko heziketaren transmisioa.

Mito edo herri ipuin batzuk

LAMUSIN, beheko errotako lamien putzua.

Beheko herritik beherago guazela, errota alletu biño lehentxio, putzu bat do. Hura ez omen da eozin putzu; han lamiek eoten omen zian.

Lamik erreka onduan ilia orrazten eoten omen zian ta eskutan urrezko orrazia izaten omen zuen hortako. Orrazia bakarra ez ordia! Hura dena izaten omen zen... urre kolorekoa!

Jende askok ez zittun ikusi izain, ta hango putzu hartan sartzen zen eozin nahiko lanakin ateko omen zen! Ba omen zen herrin ikiarri ongi igeri itten zakin bat, ta hura sartu zen batian, kosta omen zen zitzain atetzen! Zerbait ba omen zen putzu hartan betti titzen zuna!

Errota jende asko juaten zen garai batian, artua astuan gainian hartu ta taluk

ittekori iriña kartze. Ta han ingurutik pasatzian ez zuen deus ikusten izain, biño errespetua maten omen zun toki harek! Noizbatt kontatu izan due istorio hoi izautzen duen herritarrek, haikin ongi konpontzeko tarteka talo batzuk edo jateko zerbatte eaman bihar izaten ziyuela lami hoiri. Hola beti pake pixkat izaten zuela kontatzen zuen! Nonbatt ez zian gaxtuk izango, biño... on-onak izango ote zian?

Askotan esan izan da, hoik ipuinak diala eta lamik inoiz ez diala existitu izan! Biño aspaldiko sineskera batek saten zun bezela... "izena dun guziya omen da"!

Aballarri

Munduan aurreneko pertsonak bizi zian, beste pertsonaje asko ere izaten omen zian. Ta haitako bat zen Sanson. Pertsona hiru halako omen zen, haundiya, izuariya, ta behin Urnietako Buruntzatik Arano alde beira zola, ze ikusiko ta Aranoko plazan jendia dantzari saltoka ta kantari zebilela! Ez omen zitzain asko gustatu handik ikusi zuna, ta zalaparta hartan zailtzan aranoarrak akaatzia pentsatu omen zun harri haundi bat botaz.

Larraz indako aballa hartu omen zun, ta harri haundi bat bilatu zunian, aballan jarri ta hasi omen zen harei bueltak ematen... ta non botzeko indarra maten hasiko zen, hor irixtatu omen zen behi kakan batekin, ta aballarriya erdi bidian gelditu omen zen, Mantale mendin.

Aranoko jendia dantzari seittuko zun ta Sanson han bueltatu izain zen haserre biño ipurdi aldia minbeetuta itxee!

Mantale mendin don Aballarri harriya ikusita jakin leike Sanson zenbateko gizona zen! ● Iñaki Egurza + Ainhoa Ansa

Aranoko Kalbayua "Letariya"



Letariya, urteetan zehar iraun zuen baina jada galduta daukagun tradizio erlijiosoa zen.

Aranoko herria inguratzen duten mendi gailurretan zehar, urtero egiten zen pazko 10. egunean. Etxe bakoitzetik gutxienez bat izaten zen bertan parte hartzen zuena; egiten zuen eguraldia egin, hasi eta bukatu arte, elizako kanpai hotsek alaitzen zuten herria.

Gurutze bidea edo "Via crucis"-a eginenez, gurutze bakoitza kokatuta zegoen inguruan gelditzen ziren otoitz egiteko.

Goizean goiz herriko plazatik abiatuz lortzen zuten ondoko 5 gurutzeak egitea:

1. Aranomendi edo Juan Donostiko kalbayua (573m)
2. Ontzorrozko gaña edo Arrinabarretako kalbayua (690m)
3. Unamuno edo Beltsoko itxolako kalbayua (850m)
4. Garagartza edo Iltziarriko kalbayua (660m)
5. Intzingo lepua edo Epiñar-sasiko kalbayua (390m)

Eguerdi parterako berriz atzera herriko plazara iristen ziren.

Gaur egun gurutze guztiak lehen bezala ez egon arren, batzuk oraindik ere mantentzen direla ikusiko dugu.

Ibilbide hau egiten dugun bitartean ez ditzagun ahaztu bertan dauzkagun eta gure herriaren parte garrantzitsu diren mairu-barratza eta trikuharriak. Dударik gabe, Errekalko eta Añoneko lepoekin batera, Euskal Herriko historiaurreko ondarearen zati garrantzitsuak dira. Artzain eta abeltzainen bizimoduak ezagutu dituzte mendiok, baita ikazkinen txondorretako kea eta olagizonen sutegietan ateratako mailu hotsak ere.

Ibilbidean zehar ukituko ditugun puntuak honako hauek izango dira:

- Arano
- Juan Donosti
- 1.gurutzea: Aranomendi (Juan Donosti gaña)
- Oraune
- 2.gurutzea: Ontzorrozko gaña edo Arrinabarretako kalbayua
- Errekalko
- Arteskintako zabala
- 3.gurutzea: Unamuno edo Beltsoko itxolako kalbayua
- 4.gurutzea: Garagartza edo Iltziarriko kalbayua
- 5.gurutzea: Intzingo lepua edo Epiñar-sasiko kalbayua
- Epiñar
- Latseko zubia
- Larratxuri
- Zildegia

- Atakaundi
 - Arano (hasierako tokira buelta)
- HASI DEZAUN BA IBILBIDIA !!!

Juan Donostiko ermita

Ibilbidea, herriko elizaren atzealdetik Juan Donostiraino eramango gaituen malkarra igoaz hasiko dugu. Ermitari begira, ezkerraldean dagoen ataka pasa eta gailurrera doan bide xendatik lortuko dugu Aranomendira iristea, bertan lehenengo gurutzea topatuko dugularik. Tontor hau, Juan Donosti gaña izenez ere ezagutzen dugu.

Errekalko eta Unamuno alderuntz

Jarrai dezagun bidea San Roke ermitaren gaikaldean gelditzen den tontorretik barrera Orauneraino jaitsiaz. Bertan, besteak beste, Añone eta Goizuetara doazen pistei jaramonik egin gabe berriro ere tontorrera igoko gara hemendik aurrera bidean topatu ditzakegun mairubaratzak bistatik galdu gabe. Nahiz eta gaur egun desagertuta egon, laister gara kalbarioaren bigarren gurutzea zegoen lekuan, Ontzorrozko gainean.

Metro batzuk aurrerago topatuko ditugu Harriurdigain, Arrinabarreta eta Matitxolako gaña. Bertako arroketako baten gainean egoten zen gaur desagertuta dagoen jaiotza-buzoia.



Tontorretik jarraituz, Errekalkoraino ailegatuko gara bata bestearen atzetik dau-den mairu-baratzen inguruan kokatuz. Hau da mairu-baratza gehien topatuko dugun puntu garrantzitsuen. Eskuinetara daukagun ataka pasa eta pistaz-pista joango gara Arteskintako zabaleraino; bota diezaiozun begirada bat zeharkatuko dugun pagadi zabal eta zoragarri honi. Hemendik metro batzuetara dagoen iturriaren ondoko pagadi baten azpitik paseaz joko dugu goruntz. Nahiz eta bidea oso garbia ez egon, errez ikusi daiteke garai bateko ibilbidearen arrastoa. Asko ikusten ez den arren, goruntz goazela bixtatuenez herriarrek ura hartzen zuten Arteskintako iturriaren seinalea, oraindik ere errekatxoa ikusi baitaiteke goitik behera. Goruntz joko dugu muga egiten duen pinudira iritsi arte, hesaro bazterretik jarraituko dugu aurrera eta berehala gara 3. gurutzea zegoen tokian, nahiz eta hau ere desagertuta egon.

Egin dugu ibilbidearen erdia! Bertan atsedean hartuaz begirada bat botako diegu Aranoko baserrietako batzuei, baita Aiako Harria eta Larrun mendiei ere. Unamunoraino ailegatuko garelarik, Aranok bertan egiten du Elduaen eta Hernanirekin muga.

Azken txanpan

Ibilbidearen zirkulua ixten hasiko gara. Jaitsiera pixkor batez, bata bestearen atze-

tik dauden ehiztarien puestoei jarraituz, berehala gara Soroluxen. Garai batean, bertan egiten omen zuten hamaiketakoa, bakoitzak bere bokadiloa eta zatoa eramaten zituelarik. Aprobetxa dezagun, beraz, atsedenaaldi bat egiteko. Egonaldiaren ondoren aurrera abiatuko gara berriro ere, muga egiten duen itxituraren ondotik berehala Samiel sorora (Zamilara) iristeko. Handik minutu gutxira, berriz, Garagartza (ezaguna Artontor altua, Kalbario-mendia eta Andresen bordako gaina izenekin ere) joko dugu. Metro batzuk aurrera, berehala iritsiko gara ezkerretara daukagun itxituraren kontra dagoen laugarren gurutzerara; lltziarriko kalbayua.

Laugarren gurutzea utzi eta Aranoko herria bistan dugula jaitsiko gara aldapan beheiti. Hau da, agian, lanik gehien emango digun zatia, laharrek hartuta dagoen pusketa txiki bat baitaukagu aurrez-aurre. Erremedio bat bilatzearren beheruntz jaitsiko gara garbi dagoen zati bat ikusi arte, aukera dugunean gora jo beharko dugun arren. Hesaroaren ondotik joango gara aurrera, kurba-kurban dagoen 5. eta azken gurutzea topatu arte.

Ibilbidetik atera arren, ikusi nahi duenarentzat, 20 bat minutu ingurura topatu dezake Euntzingo harri ikusgarria, oraindik ezagutzen ez duenik izango baita agian.

Herrira bueltan

Kalbarioaren zirkulua guztiz itxiaz eman-go diogu amaiera letariari, beraz, bidez bide, Urumea erreka ezkerretara utzi eta Epiñarko baserriaren ondotik paseaz iritsiko gara Deskargaraño. Aldapan behera jaitsiaz ukituko dugu ibilbidearen punturik bajua; Latseko zubia, erdi aroko zubi zaharra. Erromaniko puntu bat duen begi bakarrek zubi honek kalte handiak jasau zituen 80. urtean izandako uholdeen ondorioz, zeukan izaeraren parte handia galtzera iristeraino.

Abaño alderuntz doan Latseko erreka-ko putzu-zuloetako bati deitzen diogu Lamiñosen. Elezaharrak dioenez, bertan egon omen litezke hain ezagunak ditugun izaki mitologikoak. Esaera zahar hau gogoan hartuz, "direnik ez da sinistu behar, baina ez direla ere ez da esan behar", jarraituko dugu aurrera bidea. Zubia pasa eta gora abiatuko gara Larratxuri alderuntz. Bertako baserrira ailegatzekotan gaudela ezkerretara dagoen atakatik barrena joko dugu Zildegira eramango gaituen bidezidorretik gora. Puntu honetara iritsi eta eskuinera joko dugu Atakaundi deitzen diogun bidegurutzeraino eramango gaituen bidetik eta hemen herriko sarrerara eramango gaituen eta ezkerretara gelditzen den lehenengo pista hartuko dugu letariari bukaera emanaz herriko plazan. ● Maitane Legarreta

Arano Herria - Beheko Herri - Suro - Arano Herria



San Rokeik herria.



San Roke.



Oraunetik Suro.



Labaderoa.

Ibilaldia herriko sarreran eskubitara dagoen harrizko pareta baten ondortik hasiko dugu. Honek goitik behera segituan Beheko Herriraino eramango gaitu; han sarreran, ezkerretara hartuko dugu, auzo guzia pasatuz. Berehalaxe, hormigoia bukatzean, pista hartu eta gora aldera abiatuko gara. 300 m egingakoan, lehenengo bidegurutzera iristean, eskubitara eta gora doan bidexka hartuko dugu, baina zuzenean hartu ezker 50 metrora Larriturrin garai bateko "Labaderua" ikusteko aukera izango dugu; bertan gure amonek arropa garbitzen zuten.

Goraka goazela, ibilaldiko maldarrik gogorrena igo eta berehalaxe San Roke

Ermitara iritsiko gara. Hemen eskubitara dagoen bide nagusitik segituko dugu hurrengo bidegurutzeraino; hau da Orauneko zabala. Hemen ezkerretara hartu, eta Suro auzoraino eramango gaitu pago ederrez inguratuta dagoen bideak.

Surora iristean, ezkerretara egin, eta segituan ikusiko dugu Arano herrira doan bidea, ezker-eskubi harrizko pareta batzuez inguratutik. Eskubitara egin ezker Suro auzoa ezagutuko dugu.

Ibilaldia bukatzeko, Surotik Herrira doan garai bateko gurdi-bideak, beti pago eta bista ezin hobeak eskainiz, Herrira eramango gaitu.

Bide guztian marka hori batzuk ikusiko dituzue ez galtzeko. ● **Oskar Gascon**

Leku historikoak

San Roke Ermita:

San Roke euna abuztun 16an ospatzen da. Bertan meza maten da ta Aranon jai euna izaten gu.

Larriturririko Labaderua:

Garai batian Herriko ta Beheko Herriko jendia juaten zen arropa garbitze, ze garai hartan ura nahiko juxtukua izaten zen itxiatan. 1942. urtian berritu zen azkeneko aldiz ta gaur eun holaxe mantentzen da. Gutxi gorabehera 50 urte izango dia azkeneko arropak han garbittu ziala.

Ibilaldia

4,7 km dauzka eta 2 ordu eta 30 minututan egin liteke.

Bertso berrik, Aranori jarrik



1-
Aranon jayua naiz,
senidetan lehena.
Berdin, Zelestina ta
Andres Mitxelena;
erromantze bitxia,
bikote harena...
Denboraren juanian
aldatzen da dena;
baina lehen eta orain
menpian ahulena.

2-
Luxanbi, Tintipulo,
eta Larritturri;
Ontzorrotzeko gaina,
ta Euntzingo harri...
Zenbat paraje eder
ta interesgarri;
itsasorako leiho,
tontorreko herri...
inork jakin nahi al du
momentuko berri?

3-
Gipuzkutik mugara
bidez iritxita,
krisiak eragina
izan du, gutxika.
Aurkituko dittugu
bazterrak utzita,
kamiyua larraz ta
intsusaz josita,
ta geneukan fabrika
bakarra, itxita.

4-
la urte t'erdiko
lutua atzian,
kutztarren lehoi hotsak
lekuta jua zian!
Esperantza piztu zen
Kelerra jartzian,
ttikiek segi zuten
eroso antzian,
hara! Zer gertatzen den,
haundiek hartzian.

5-
Goikerri ta Bekerri
kilometro erdin;
nora jo, aukeratu,
Gurutzeko hegin...
Suro ta Benta Berri
beste bi desberdin,
herri bakar bat dela
iruditu zedin,
pillatuxeagoa
ezin al zen egin?

6-
Herritik pagopia
gozatuz abitu...
maiz bixta ta arnasa
hartzera gelditu...
erdi zintzilik dauden
paretei segitu...
enkantu bereziko
xenda asko dittu,
otiak eta larrak
hartu ez balitu!

7-
Iruñatik berriz noiz
egin zaigu kaso?
Asfaltuari eta
kUNETARI paso!
Hiru kilometruan
erne eta mantso,
daukagun kamiyua
eukita akaso,
xendak larrak hartzia
normala da oso.

8-
Orbelak, udazkena
berekina darama;
eta modan jartzen da:
Aranoko plana.
Nik ez dakit zergatik,
baina badu fama.
Denek ekartzen dute
patrikan labana,
maleteruan botak,
eta xexto bana.

9-
Gu, gizaldiz gizaldi,
eta mende mende,
bizi izandu gara
naturaren mende;
basoan aste egun,
larunbat, igande...
Pagua aina lagun,
gerran aina jende...
Zer izango litzake,
gosiak bageunde?

10-
Goizean goiz mendira,
nork hartuko gaina?
Halako esfortzuak
behar du ordaina.
Baxakarana, urra,
intxaurra, gaztaina...
denetik biltzen dugu,
oterik ez baina!
Lehengoe egin zuten
gaurkoentzat aina.

11-
Elurra, kazkabarra,
hotza ta iluna;
bostehun metroan ez da
negua biguna!
Hori da daukaguna,
eta dakiguna.
Frontoi bat, tapatua,
da behar duguna;
itzala ta lehorra
emango diguna.

12-
Ume bat frontoiean
pilotan ari da;
lehenengo euri tanta,
orain, erori da;
berak pilotaria
izan nahi du, tira...
baina gaur beharko du
leihotik begira;
berriz ere auzuan
aterako dira!

13-
Eskolan, Goizuetan,
badabil gutarrik;
bi herrien artean
ezta giro txarrik;
hemen jaiotze tasak
hartu du indarrik;
gaur zortzi-hamar urte,
ez zegoen haurrik,
autobusa, bai; baina
txoferra bakarrik!

14-
Santiotan festetan,
dantza eta jauzi...
San Martinetan, talo
beruari eutsi...
Iñotetan, zomorro
zuri-gorritz jantzi...
Igual izango gara,
bizilagun gutxi;
baina festari hiltzen
ez diogu utzi.

15-
Nahi bada, egutera;
nahi bada, mospela;
pentsa, aukera asko
egin litezkeela...
Guk famatuko dugu,
zenbaitte ez bela!
Munduan leku onak
badaude bestela;
baina nik pentsatzen dut
hoberik ez dela.

16-
Barka, mindu bazaitut
nik adiskidea;
baina adierazpena,
da eskubidea.
Nik hamasei bertotan
bota dut nirea...
Inork baldin badauka
gehioren idea,
aldizkari berrian
libre du bidea.

Arano, iruditan

Aldizkari honetako idatzietako hitzek Arano hobeki ezagutzen eta estimatzen lagunduko digute. Eta hitzek bezalaxe, irudiek ere herriaren berri izaten laguntzen digute.

Atal honetan Aranoko zenbait irudi dituzu. Joxean eta Mikel Ruizen begiradaz baliatu gara —haiek utzitako argazkiez, alegia—, gure herriari begiratzeko, eta Aranok eskaintzen dizkigun irudi ederrez gozatzeko.



Belarsoroak.



San Roke.



Etixeruntz.



Neguko eguzkia.



Burniko basoa.



Karnabalak.



Orbela.



Egunsentiak.



San Migel.



Behe lainoa.

Garai bateko jostailuak



Xauxarko Jabier Legarreta.

Aranoko Santioetan egiten den Feria, azken urteetan hutsegin ezineko zita bihurtu da herriko askorentzat! Sagardo eta gazta probaketatik eta herriko artisauek txikien erakusleio izatetik hasi zena, tortilla lehiaketa, gozo, basurde, paella edota helatu probaketa, txakolina eta beste hainbat genero biltzen den eguna bihurtu da. Artisauek txikiak ere, gero eta animatuago ageri dira, egun horretan postu txikiren batean, urtean zehar egindako zerbait erakustera eta ahal dela saltzera ateratzeko. Aurtengoan, artisauegan jarriko dugu begirada eta postu berezi


batean egindako lanari aitoren xume bat eskaini! Jabier Legarreta, Xauxarko semeak, garai bateko jostailuak ekarri zituen gogora, eta eginda ekarri zituen jostailuak zertarako ziren azaltzearekin batera, jostailu bakoitza, gehien gustatu zitzaiola igarri zuenari erregalatu zion. Egun batez, Aranoko "ume izandakoak"

eta oraintxe ume eta gaztetxo direnak, duela 50 urteko jostailuekin jostatzen aritu ziren elkarrekin! Batzuk tirinkari eraginez, beste batzuk traktore txikiaren misterioei arretarik kendu ezinez...

Jabier Legarretak azalduko digu, jostailu hauetako bakoitzarekin zer oroitzapen duen berak:

Hariaren esku jokua

Trebezia haundiena zeinek ote zuen honetan? Hari bat luzean moztu eta korapilo batekin ixten zen. Bi lagunaren artean jostatzeke izaten zen eta marrazki ezin polittagoak lortzen ziren pausotik pausora. Trabatut gabe ibiltzea zen helburua.





Tirrinka

Moto bat erregalatutakoan bezainbesteko ilusioa egiten ziela aitortzen du Jabierrek.

Barriñu haundien uztaiekin egiten genituen atzetik korrika ibiltzeko balio zuten jostailu hauek. Haren atzetik korrika ikaragarri disfrutatzen genuen. Maldan behera joatean, ordea, orduan bai komeriak! Haren bila joan behar eta berriz gora ekarri eta segi berriro ere! Izena nondik zetorkion? Ez dakit ba... "tirrin tin tin tin" harrien gainetik pasatzean egiten zutelako-edo jarriko genion Aranon izen hori...!



Botoiak hariarekin

Erabilera asko zituen jostailu honek.

Arreba josten nola aritzen zen... harrerri lapurtzen genizkion gabardina-botoiak. Hari bat sartu alde batetik bestera, buelta batzuk eman hari, eta gero tira egiten genuen behin eta berriz, tira, biltzen utzi eta tira berriz ere. Airean aspertzean, mahai gainean poteka jartzea zen hurrengo pausoa, soinua ateratzen zuelako, baina harekin ere aspertu egiten...! Orduan ondokoaren ilean jarri eta endredo ikaragarriak egiten zituen! Martin (anaia) beti bi zatiko atearen gainetik pasatzen zen airean eskapo eta ni, berriz, maratila irekitzen harrapatzen ninduten!



Dantxarik

Txiba baten tankerako dantza egiten zuten.

Haritz txikiari ateratzen zaion zerbait da. Ongi heldu gabeko zerbait edo... eta mendian bilatzen genituen kanika moduko bola horiek. Txulo bat izaten zuten eta han txotx fin bat sartu eta plater baten gainean dantzan jartzen genituen txotx haren gainean. Txotxa egiteko, txikitatik izaten genuen poltsikoan labana erregetan edo zorionetan ekarria eta harekin ederki egiten genuen behar genuena. Orain esan behar hori...



Pintzarekin egindako pistola

Amari ez zitzaion gustatzen bere gauzak hartzea jostatzen erabiltzeko.

Aitak erakusten zizkigun horrelako jostailuak eta ama, berriz, pintzak falta zituela ikusten zuenean, asko haserretzen zen gurekin! Artaleak balinak balira bezala erabiltzea oso entretenigarria zen gure txikitako jolasetan, oiloen artera botatakoan oilo guztiak haren bila arrapaladan joaten zirelako.

Tiragoma

Sarde itxura zuen edozein arbola-adarrekin egiten zuten tresna hau.

Aitaren bizikletaren kubieta hautsiekin jartzen genion gero gomazko tira. Gero bere kartuxoren bat ireki, barreneko plomuak hartu eta haiek bezelako proiektilak gutxi ziren! Dianaren baten kontra tiraka ibiltzen ginen normalean baina txoriak harrapatzen ere bai, nahiz eta zaila izan! Kaxka-beltx bat seko utzi nuen behin eta hura izan zen nere bizitzako ehiza!



Beleta

Aitak izaten zituen erreminta klase guztiak eta haiekin moldatzen ziren jostailuak egiteko.

Hariaren karretea erabiltzen genuen hau egiteko ere. Honeri bi zulo egin bi iltze txikirekin, eta helizeari tomate potoren batekin ematen genion itxura. Helizeari egindako bi txuloak karreteko iltzeekin bat ez zetozenean izaten ziren komeriak! Berriz egin behar, edo zuloak lekuz aldatu behar... Karreteari buelta emateko, hari bat jartzen zitzaion inguruan bilduta, eta heldu leku bat ere egiten zen, karreteak helizea airean bidali behar zuenez, eskuekin trabarik ez egiteko.



Arkua eta fletxak

Jostatzen baino hobeki pasatzen zutela zioen Jabierrek jostailuak egiten.

Fletxaren puntan guardasolaren barilak jarrita arrunt peligr osoa gelditzen zen! Belar-soroan behetik gora bota eta behe-rakoan lurrean nola sartzen zen ikustea gustatzen zitzaidan niri. Hurritz-makila zen onena, baina luma eta kontu horietaz ez ginen akordatu ere egiten!




Krixketinak

Xauxarren ez zen faltako danbor eta krixketin soinurik! Aitak egiten zituen aurrena jostailuak eta gero gu tentatu! Intxaur azal batekin, hari pixka batekin eta txotx batekin egina zegoen krixketina. Aita danborrarekin artixta zen, baita bi kutxare, bi harri luxerekin... edozer gauzarekin ateratzen zuen soinua!

Tratoria

Hau zen, Jabier Legarretaren ustez, egiten zituzten jostailuen artean sofistikatuena.


Ama eta arreba josten aritzen zirenez, haria bukatzen zitzairenean, haien egurrezko hari-karreteak hartu eta koskak ateratzen genizkien bazterretan. Etxean beti izaten ziren kandelak, tormenta egunetan hauetakoren bat piztu eta errosarioa erre-zatu behar izaten zelako, eta kandela pusketa bat lortzea ez zen zaila. Argizari pusketa hau bazter batean jartzen zen bueltak ematen hastean polikiago joan zedin. Gero, goma batekin txotx bat lotzea besterik ez zen gelditzen eta traktorea egina! Txotxari bueltak eman eta lurrean uzten genuen eta hura mar-txan jartzen zen!



Damo jokua

3 lerroan egiteko jokuari deitzen zioten horrela.

Tableroa egin eta gero edozer gauzarekin aritzen ginen. Izan zitezkeen hiru artale eta hiru babarrun, edo beste edozein gauza. Hiru lerroan egin behar!



Txapak

Aranon baino gehiago, Hernanin ikusi izan du jolas hau Jabierrek.

Aranon ez zen zerbezarik eta kokakolarik izaten eta txapa aukera gutxi... petrilaren gainean jarri eta txapa batekin bestea jotzea izaten zen jolasaren muina.

Kapikua, sentimendu eta fruitua



KAPIKUA

(Kultura, komunikazio-inkomunikazioa eta inkultura)

Kultura

Kultura ezberdinetako jendea bizi gara Aranon:

Nekazal kultura, kaletarra. Kultur munduan bertsolari, kantari... antzezlea ere bada. Euskal kultura maite duena, euskera ezagutzen ez duena, ikasketa ofizialak badituenak, besteak "ofizioz" ikasi dituenak ...

Jende aniztasun hau aberasgarria izan daiteke... ala ez. Azken finean, bidea pausoka egiten denez, bidea egitea borondate kontu bat da.

Komunikazio-inkomunikazioa

Pertsonok komunikazioa behar dugula gauza jakina da; pena da, ordea, orokorrean komunikazio erraza bilatzen dugula. Gure antzekoak direnekin hitz egitea atsegin dugu eta, zoritxarrez, nahigabe kontrakoak sortzen ditugu, era honetan, hauekin inkomunikazioa sortuz. Adibidez:

Ohikoa da ehiztariak ekologistez (edo ekologistak ehiztariez) gaizki esaka entzutea. Beraien artean (ehiztariak ehiztariekin/ekologistak ekologistekin) egotera ohitzen dira, horrela komunikazio erraz bat sortuz. Komunikazioa gehiago errazteko bestea kontraktatzat jotzen dute, komunikazioa ezinezkoa dela dirudielarik. INKOMUNIKAZIOA hemen da.

Eta hau ezinbestekoa balitz, zer esan genezake, adibidez, indiar amerikarrez. Ba al da ekologista eta ehiztariagoa izan daitekeen kulturarik? Mendeetan zehar erakutsi dute, pertsona ehiztari eta ekologista izan daitekeela.

Ehiztari/ekologistak jarri ditut adibide-tzat, baina beste asko jarri nitzake: Base-rritarra/kaletarra, euskalduna/erdalduna, gizona/emakumea...

Inkultura

Inkultura ez da kultura ez edukitzea. Nere ustetan, kultura ez errespetatzea da inkultura; eta berdin du bakoitzarena edo bestearena izatea. Hau da, bai gure kultura (konplexurik gabe) bai besteena (harrotasunik gabe) errespetatzea ezinbestekoa beharko luke XXI. mendean.

Oinarri hauekin komunikazioa lantzen badugu, inkomunikazioak soilik oztopoak sortzen dituela ikusiko dugu (nahiz eta askotan komunikazioa zailagoa izan).

SENTIMENDUAK

Herriarekiko sentimendua

Herritarren artean bada herriarekiko harrotasun sentimendu bat, jende ezberdinari ikuspuntu ezberdinetatik sortzen zaiona. Hasieran aipatu dut Aranoko jende aniztasuna aberasgarria izan dadin bidea pausoka egin behar dela, eta bidea borondate kontu bat dela. Ba tira, borondate hau herriarekiko sentimendu honek mugitu beharko luke.

Sentimenduak eta arrazoa

Arrazoa denaren gainetik dago gaur egun, eta hain listoak izateak ez dakit zer onura ekarri dizkigun. Hego haizeak bazter guztiak lehortzen dituen bezala, arrazoiak ilusioa, inozentzia eta sentimenduak lehor ditzake. Edozein gogoeta edo proiekturen aurrean beti entzuten dugu: Zertarako balio du horrelako lanak hartzeak? Zer lortu nahi duzu horrek? Ez du merezi...

Badirudi ekonomikoki garai gogorrak etorriko direla, badirudi arrazoi asko aurkitu ditzakegula desilusioan erortzeko... baina baliteke beste balio batzuk krisialditik kanpo geratzea. Azken urteotan mundu hobe batengatik borrokatzea ergelkeria dela dirudi, eta, nola diren gauzak, gabezia ideologiko honek lortu duena da gauza txikiengatik borrokatzeko adorea galtzea.

Gure esku dago sentimendu garrantzitsua go batzuegatik borrokatzea.

FRUITUAK

Aranok nahi dituen fruituak zeintzuk diren argitzeko, bi galdera egin beharko genituzke:

Zer arazo edo gabezia edukiko dituzte herriek XXI. mendean

Nekazaritzaren bukaera? Arrazoi honengatik mendietako zikinak, suteak... kultura baten amaiera? Herrien despopulazioa, zerbitzuen murrizpena (medikuak...)...

Zer arazo edo gabezia ditu Aranok konkretuki

Galdera hau aranoarrei zabaltzea interesgarria litzateke, nik adibide gisa hauek aipatuko nitzake: teilatudun frontoia, kultur gune on bat, oraingo haurrak hemendik 10/15 urtera Aranotik joan nahi ez izatea...

Galdera hauek egin ondoren argi utzi nahiko nuke ez dudala inor kritikatu nahi, soilik gabezia hauetatik lanaren bitartez fruitu batzuk sortzeko elkartasun gonbidapen bat egin nahi dut. Normalean errazena ardurak hartzen dituen jendea kritikatzeko da. Herriko gabezieta Udala kritikatzeko, festetako gabezieta Jai Batzordea kritikatzeko... eta noski kritikatu daitezkeen gauzak egiten dituztela, baina behintzat ardurak hartzearen meritua ezin zaie kendu. Bada (bagara) jende asko ardurarik hartzen ez duena, eta jokaera honetan ez dago meritu handirik.

Martin Luther King-ek esan zuen XX. mendea ez zela gogoratuko egon zen jende gaiztoaren astakeriengatik, baizik eta jende onaren isiltasun lotsagarriengatik.

Beraz onar dezagun denontzat errazagoa dela beste aldera begiratzea, baina hau egiten badugu ez ditzagun fruitu ustelak besterik espero. ● **Imanol Egues**

Herriko artista gazteak

Ez dakigu museo ospetsu horietakoren batean lekurik izanen ote luketen marrazki hauek, baina bai, zalantzarik gabe, gure herriko aldizkarian. Herriari bizipoza ematen diote haurrek, eta gure aldizkariari kolorea eta bizitasuna. Atal honetan duzue, beraz, herriko gure artista gazteen ekarpena. Haien artelanak, denon gozagarri.



Naroa



Oinatz



Jokin




Ander



Uxue



Oihan





Irati



Intza



Julen



Azahara

Kaletik mendira eta hiritik herrira



Aranon ere, beste herri guztietan bezala, herritaren joan-etorria ohikoa izan da. Herria utzi eta kanpora bizitzera joan direnak asko izan dira, baina kanpotik gurera etorritakoak ere baditugu, bertan bizilekua aurkitu dutenak. Lehendabiziko idatzi honetan, Donostiatik Aranoko Juanikenera etorritakoen testigantza jaso dugu. Kalea eta hiria utzita mendira eta herrira etorritakoen bizipena.

Noiz, zergatik, nola hartu genuen Aranora etortzeko erabakia idazteko eskatu digute eta ea lau hitzetan kontatzen dugun.

Duela zortzi bat urte egin genuen honarako aukera. Herria ezaguna genuen Kooperatibakoei esker izanak ginelako astebururen batean. Nerea eta biok Donostian bizi ginela amets egiten genuen horrelako herritxo batera etortzearekin, haurrak kalera lasai bidali eta mendian bizitzarekin. Aranok baldintza guztiak ederki betetzen zituen, gainera urrutiegi joan gabe gainontzeko familia eta Donostiko lagunekin kontaktuan egoteko aukera ere ematen zuen.

Horrela, bazkaltzera etorritako igande batean Juanikene salgai zegoela ikusi genuen eta, tamaina honetako apustu batek ematen zigun beldurrari, ametsaren indarra gailendu zitzaion. Etxeak lan han-

dia zuen eta horrelako lan batek dituen buruhausteei ilusioz ekin genion.

Etxearen oinarritzakoa berritu eta gero, lanak erabat bukatu gabe, orduan familia osatzen genuen laurak 2002ko udan sartu ginen etxean. Julenek 5 urte eta Maiderrek 2 zituzten. Lana eta eskolak Hernanira aldatuak genituen ordurako.

Geroztik 8 urte pasa dira eta ez gara damu egindako aldaketaz. Egunero lanerako autoa hartu beharra edo hirian ez egoteak izan ditzakeen eragozpenak ederki asetzen dituzte hemengo lasaitasunak, mendi paseo bikainek, zeruaren kolore aldakorak, zintzarrien fondoko hotsak (autoenaren orde) eta nola ez herriko jende atseginak (Rokeren xamurtasuna gogoan).

Etorri eta 4 urtera Irune jaio zen eta herriko hazkunde demografikoa hasia zen ordurako. Besteek ez bezala badu adineko koadrila herrian eta herri txikietako kale

bizitza egiteko aukera ere bai.

Gure haurrak "silbestre" xamarrek direnez ederki egokitu dira mendira, eta hemengo maldaren ondorioz hankak ederki sendotu zaizkiela esan behar. Pixkanaka herriko ohituretan parte hartzen ari dira eta Arano berea egiten. Ederki gozatzen ditugu onddo eta gaztainak, erreka udan (baita neguan ere behin edo behin), Errekalkon zerua eta errotako ura, urtarok pagoetan, hontzarekin gaueko solasak, zer esanik ez elurra egiten duenetan; Santio eta San Martinetan, ihauterietan... Gaur egun ahaztuta dauden balioak direlakoan gaude, isiltasuna entzun ez duenak ez daki zertaz ari garen.

Euria da kanpoan eta etxean denak lotan dira dagoeneko. Nik beheko suko telebistan enberrari buelta emanez katez aldatuko dut eta sugarrari begira ea loak hartzen nauen... **● Juanikenera Erramun**

"Kanpoko horiek"

Beste idatzi honetan ere Donostiatik Aranorako aldaketaren berri ematen digute. Bi mundu eta 20 urte, labur azalduta. Kanpotik etorri eta etxeko bihurtu diren horien kontakizuna duzu, gure herriaren ikuspegia osatzen lagunduko digulakoan.

Haiei esker ere egin du aurrera herriak, eta "kanpokoak" direla esaten diegu nahigabe oraindik. Honatx Arotzaunditik idatzitako hitzak:

Gogoan dut, nostalgia puntu batekin, gaur nire etxea den Arotzaundira etorri nintzeneko 1991ko azaroko gau hura. Batzuek, etxearen izenak "Zurgin haundi" esan nahi duela diote; beste batzuek, berriz, Nafarroan "arotz" burdina lantzen duenari esaten zaionez, "Errementari haundi" esan nahiko ote duen... Nork daki? Azkenean nire etxea da eta gustura nago.

Bereko historia zuen baserri hark ez ninduen bertakoa banintz bezala bere baitan hartzen. Beheko solairua bistan uzten zuen lurzoru hura, haritzeko egur-lataz egina eta zuloz josia, atea, leihoak, harrizko paretak... ordura arte nire bizitza osoan bizi izan nintzen pisukoan aldean oso desberdinak ziren, eta zer esanik ez, herriko kaleak! Baso bihurtzen ziren eraikinak, harrizko etxe eta bideak... baina erabakia hartua zegoen eta han geunden!

Poliki-poliki obra egin eta baserritzar hura gaur egun gure etxea den horretan itxuratzea lortu genuen eta, pixkanaka, elkar onartuz joan ginen, gaur egun daukagun batasun on hau eratu arte.

Hiri bateko bizimodua, Donostia bezalako hiri txiki batekoa izanagatik, herri txiki batekoagatik aldatzea zaila da, nahiz eta orain sentitzen dugun denborak arrazoia eman digula eta bere garaian hartutako erabakiak gure tokian kokatu gaituela. Horrela bihurtu da Arano gure herria.

Euskaraz jakin ez arren, ez zirudien horrek inongo arazorik ekarriko zigunik. Etxeko atarian jarri nahi nuen farola zintzilik jartzen Basiliok lagundu zidan beza-



Arotzaundiren atzeko aldea.

la, Paulinok, nik ordura arte pelikuletan beste inon ikusi ez nuen erreminta berri harekin, "motozerrarekin", egurra mozten erakutsi eta lagunduko zidan. Eta horrela, bata bestearen atzetik, familia familiaren ondotik... batzuek ongi etorria ematen ziguten, eta beste batzuek konfiantza gehiago izan arte itxoiten zuten hainbeste urtetan zehar etengabe entzun izan dugun galdera magikoa egiteko; "Nola demontre etorri zarete Donostiatik Aranora bizitzera?" Noizbait bertsoren bat ere entzun izan dugu San Roke Elkarteko afariaren batean!


Eta horrela, basurde platerkada batzuen ondoren, eta ontto eta perretxikoak biltzen ikasiz (Rokek gehienak zakarrontzira botatzeko baztertuko bazituen ere), urteak pasatzen joan ziren. Batzuk bizitzera Hernanira nola joan ziren ikusi genuen, beste batzuk nola etorri ziren ere bai, eta

guk inguruko toki eta txokoen izenak, "Errekalko", "Ostakutz", "Maila", "Lataxe",... ikasten genituen, toki hura gure toki, gure bizitza, bihurtzeko.

Gaur, urte batzuk pasa eta gero, Arano ere, mundu honetako toki guztiak bezala, aldatu egin da eta aldatzen jarraituko du. Niretzat aldaketa izugarriak izan dira, izan ere, gu etorri ginenean bi lagun etorri ginen eta orain lau gara. Gure bi alabak Goizuetako eskolara joaten dira; eta nik ere lanera joateko egunero 50 km egin behar baditut ere, Aranon bizitzeak horrenbeste merezi du!

Bi munduren arteko 20 urteko aldaketa laburtzen saiatu naiz eta uste dut gauza asko utzi ditudala bidean, baina esan dezakedan gauza bakarra zera da; kotxea aparkatzen dudanean, jaitsi, Errekalko aldera begiratu, eta zera pentsatzen dudala: Etxean nago! **Ikaki Egurza**

Aranoarrak munduan: Leonet-Oronoz familia



Nikolas.

Sarri Aranoarrak bizimodua hemen, herrian, ezin aurrera eraman eta beste lekuetara joan beharrean aurkitu izan dira. Hona hemen Aranoar familia horietako baten kasua.

Maritzu, Nikolas, Isidro, Jabier eta Marisa, hauek dira Leonet-Oronoz familiako senideak. Haien aita, Agustin Leonet Perurena (1900-1951) zen eta ama, berriz, Sebastianana Oronoz Zabala (1910- 1959). Aitak, arrantzalea izaki, denbora luzeak ematen zituen itsasoan bakailuetara joanda. Hernanin zuten bizilekua hasieran eta bertan jaioa da Maritzu, alaba zaharrena. Hau txikia zela, amak bere familiatik gertuago egoteko Aranoarra itzultzea erabaki zuen. Martzenen jarri ziren hasieran alokairuan. Gerora, izeba Luisa eta osaba Marianoren etxean Juanikoenean bizitu ziren.



Isidro.

Aitaren heriotza honela gogoratzen du Maritzuk: *"Atta, hil zenian, ama alargun oso gazteik gelditu zen. Guk 10, 8, 7, 5 eta 3 urte ginittun ordun gutxi gorabehera".* Sebastianak Donostiara joan behar izan zuen neskame. *"Haiek garaiak, -dio Maritzuk- orduan ez zen izaten gaur egun, alargun gelditzerakoan, izaten den pentsio hori eta badakizu... nundik edo handik jan bihar eta amak, gu izeba- osabekin utzi eta Donostira jun biharra izan zun neskame. Hala're jai ginunian, denak Aranon juntatzen ginan".*

Aranon bizi ziren garaiko jolasak eta zenbait pasarte gogoan dattu Maritzuk.

"Gurdi bat hutsik ikusten baginun, batzuk ganian ta bestiak tira ta bultza hor ibiltzen ginan. Batzutan mina hartu're bai. Eskolan, berriz, radiadore zahar batzuk izaten zian ta han eskuak erre're bai amajinat aldiz. Egualdi txarra itten bazun, berriz, Itxautxikiko soto juten ginan eta gotz tartian gorde gordeka ibiltzen ginan. Angelusa 7ak aldian izaten izango zen ta hura aittu ezkie denak itxe jun bihar izaten ginun, mino... guk kanpanik ez ginun aitzen gue zalapartan ta, han tortzen tzen ama gue bila buila batian!"...algara artean kontatzen du Maritxuk.

11 bat urte zituela, Maritxu, Mitxele-neko Prexen eta Xauxarko Kontxitarekin batera, Bidaniko monja kolegiara bidali zuten. Gaur egun, Igoako bere senararekin, Burlatan du bere bizilekua eta lau seme alaba hazi dituzte bertan.

Atzetik zetozen anaiak ere gazterik joan ziren lanera. Mendian aritu omen ziren, batez ere, Frantzia inguruetan. Soldaduska Burgos eta Gasteizen egin ondoren Aranon bizimodurik ez zutela aterako pentsatuz, Nikolas eta Isidrok garai hartako hainbat euskaldunek bezala, Ameriketara joateko hautua egin zuten. Maritxuren senarra Ameriketara egondakoa omen zen hiru urte eta erdiko kontratuarekin. Haiak betetakoan, itzuli egiten omen ziren nahitaez. Haren kontaktuei esker, bi anaiak Arizonara joan ziren gazterik, artzain edo basoko lanetara hasiera batean behintzat. *"Triste gelditu nitzan haik jun tzianian eta uaindik'e pena ematen dit"* - dio Maritxuk.

Bi anaiak, han bertan osatu zuten familia. Nikolas bertako emakume batekin ezkondu eta alaba bat adoptatu zuten. Duela bost urte hila da.

Isidrok ere hango beste emakume batekin 6 seme-alabako familia osatu zuen. Bi seme eta bi alaba ditu bereak eta nahiz eta banandua dagoen oraindik ere *"kapataz"* moduan jarraitzen omen du lanean. *"Hego Amerikatik omen datoz gaur egun artzainik gehienak. Euskal artzai gazteenak ere hirurogei urtetik gorakoak omen dira"*.

Isidrok, sarri xamar egiten die bisita senideei eta hamabostean behin edo deitzen omen die bati ez bada besteari. Aranora ere etortzen dira bisitan bertan dagoenean. Aurten bi hilabete pasa ditu gure artean. *"San Roke eunian han ginan*



Bost senideak.



Goian, ezker-eskuin: Maritxu, Sebastiana eta Nikolas. Behean, ezker-eskuin: Jabier, Marisa eta Isidro.

mezetan eta geo kontsejun bazkaldu ginun. Ez dakizu ze poza maten diun Aranon hainbeste ume ta jende gazte daola jakitriak", dio emozioz beterik.

Laugarren senidea, gertuago gelditu zen bizitzen. Gaur egun, jubilatuta dago eta Astigarragan bizi da bere emaztea eta familiarekin. Hiru seme ditu eta horien eskuetatik jaso dugu argazki zahar hau.

Gazteena berriz, Marisa, Oiartzunen bizi da gaur egun, Donamariko senarra

du eta alaba bat dute. Bi ahizpak sarri egoten omen dira elkarrekin batakitari laguntzen.

Hona hemen, laburbilduta, bizitzak Euskal Herriko eta munduko hainbat txokotara sakabanatu duen familia baten istorioa. Hori bai, Aranon bizitako momentuak gogoan dituzte eta beren sustraiak ez dituzte ahaztuak. Suerte izan familia, eta besarkada bat zuen herria den honetatik. ● **Arantxa Ansa**

Aranon ere badaude sendabelarrak



Azken urteotan, egunero sortzen diren aurrerapen teknikoak beso zabalik hartzearekin batera, naturak eskaintzen duenari berriro arreta jartzeko joera zabaltzen ari dela dirudi. Horregatik, nekazaritza ekologikoa, produktu biologikoak eta antzeko gaiak gero eta indar gehiago ari dira hartzen.

Sendabideekin ere antzekoa gertatzen da eta, medikuntza ofizialaz gain, beste medikuntza-mota batzuk bilatzen dira; horien artean, gaixotasunak sendatzeko sendabelarrak erabiltzea.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 1978ko Alma-Atako deklarazioan sendabide tradizionalen erabilera gomendatu zuenetik, sendabelarren balioa baieztatzen duten hamaika txosten, azterketa eta ebazpen argitaratu ditu.

Bestalde, OMEk garapen-bidean dauden herrialdeetan medikuntza tradizionalaren erabilera hobesten du, farmazia-industriak ekoiztutako sendagaiak hartzea baino merkeagoa, eskuragarriagoa eta, kasu honetan, eraginkorragoa delako.

KONTUZ SENDABELARREKIN: Oiatzrun-go Marai baserriko Maria Jesus eta Pepita ahizpek, dakiten ia guztia gurasoengandik eta inguruko jendearengandik jaso dutela diote. Hauei egindako elkarrizketa batetik irakurritako hitzetatik hartuta, *"azken finean, belar-urak badu zerbait ona: behar bezala hartuz gero, ez duela*

kalterik egiten eta sendagileak emandako botikekin batera har daitekeela, baina, ongi ezagutzen diren belarrak soilik erabili behar dira. Belar bakoitzaren eragina eta sor ditzakeen arazoak ondo baino hobeto ezagutu behar dira. Hauen erabilera eta prestaketa egokia egiteko eskarmentua behar da eta prekauzioa gomendatzen dugu alde horretatik.

Ezertan hasi aurretik ohar batzuk kontuan hartzea ezinbestekoa da. Hasteko hartu behar dugun sendabelar horren landarea bera ezagutu behar dugu, eta baita bakoitzari dagokion dosia ere, bestela toxikoa gerta daiteke eta kontrako efektuak lortu ditzakegu".

Bildu ondoren kristalezko ontzietan sar ditzakegu, baina kontuan izan data: denbora luzeegian edukitzea ez da komeni, eraginkortasuna galdu baitezake. Belarrak lehortu ere egin daitezke. Sendabelarrak prestatzeko modu desberdinak daude, guk horietako batzuk aipatuko ditugu:

- **Tisanak edo infusioak:** irakindako urretan botako dugu sendabelarra berehala sutik kenduz eta hamar minutuz edukiz estalitako ontzian.
- **Egasketak:** osagai aktiboa erauztea zailagoa denean erabili ohi da, sustraiekin eta azalekin gertatzen den moduan. 10 eta 20 minutu bitartean utzi behar da egosten.

- **Beratzzea:** ez du inongo beroketarik behar. Litro bat ur hotzean 20 gramo sendabelar beratzen jartzen dira, 10 orduz gutxi gorabehera hosto eta loreen kasuan, eta 20 ordu sustrai eta azalen kasuan.

- **Kataplasmak:** hauek prestatzeko modu desberdinak daude erabileraren arabera. Beroak izango dira zauriren bat sendatu nahi badugu adibidez, baina barize edo erreduren kasuan kataplasma hotzak erabiliko ditugu. Sendabelarrak benda batekin jartzen dira; landare freskoek egosaldi arin bat jaso ondoren edo arrautzaren zuringotan berotu ondoren moldagarriagoa izango da kataplasma.

- **Jarabeak:** sendabelarrak egosi egingo ditugu. Eduki hosto eta loreak ordu laurden batez ur irakinetan. Sustraiak denbora gehiagoz eduki beharko dira. Ondoren eztiarekin gozatuko dugu guztia.

- **Ukenduak:** sendabelarrak oliotan egosiko ditugu, salda hori iragazi ondoren argizaria gehituko diogu, modu honetara ukendu natural eta eraginkorak lortu ditzakegu.

Aranon ere bildu ditzakegu hainbat eta hainbat sendabelar eta bertako herriarrek ezagunetariokak dituzten batzuk aipatuko ditugu jarraian.



KAMAMILUA:

Aranoko bideetan oso ugari da eta jende asko bertaratzen da kamamilua biltzera. Apirilean hasten da loratzen. Negu elurtsuak eta udaberri hezeak maite ditu eta usain onekoa da.

Kamamilu ura, haurren tripako min kasuetan oso lagungarria da. Disgusto handiren baten ostean ere nerbio sistema lasaitzeko balio du. Baita begiak handituta, konjuntibitisa dugunean (konpresa eran), urdail gaitzak, sukarra dugunera, lo ezin egina eta hileroko mingarriak ditugunean ere.

Honen lurrin bainuak har ditzakegu ilea zaindu nahi badugu, odol-piko edo almorranak baditugu eta baita sinusitia baldin badugu ere. Zauri eta erreuma minak kentzeko kamamilarekin egindako olio oso ona omen da eta haginetakoa mina dugunean gargarak egiteko esan ohi zaigu.



TXILARRA:

Aranoko mendietan hain ugaria den eta erleek hain maite duten landare hau, erratza oso ona da gure pixabideak libratzeko batez ere. Giltzurruna indartzen du eta odola garbitzen duela diote. Ondorioz, larruazaleko gaitzak, erreuma eta harriak desagertzen dira.

Adaxka gazteak erabiltzen dira ur egozia egiteko eta otordu baten ondoren hartu behar da.

Tanino ugariak denez, astringentea da, hau da, kakeria mozteko oso ona da.

Zenbait lekutan, adaxka loratuak labean, 35°- 40°-tan lehortu eta te edo kafe bezalakoa egin eta hartzen dute.



MIHURA (*Viscum album*):

Euskal Herrian betidanik erabili izan da. Mihura, dakigunez, beste zuhaitzez baliatzen da elikatzeko, sustraiak barruraino sartuz. Normalean udazken aldera jasotzen da, fruitua atera aurretik. Urri hasieratik abendua arte eta martxotik maiatzara arte ere jaso daiteke. Pikorrak ongi kendu (pozoitsuak baitira jan edo edateko; ez kanpotik emateko). Kasu askotarako erabiltzen da.

- Epilepsia eta histeria gogorak: ur hotzetan beratuta.
- Metabolismoa egokitze, hormona desorekak, diabetea, area (pankreako gaitzak).
- Arteriosklerosia eta apoplejia atakeak.
- Sudur, birika edo hesteetako odolustuak (hemorragiak)
- Bihotza eta odol zirkulazioa: tentsioa egokitu, aritmiak...
- Hileroko nahasiak, umetokiko gorabeherak, menopausiako istiluak.
- Antzutasuna gaintitzen laguntzeko.
- Lunbagoa eta ziatikaren kasuan ere ondo etortzen da, baita ospel eta barizeen kasuan ere.

Nola prestatu:

- Ur hotzetan beratzen jarrita: koilaraka mihura litro laurden uretan (litroan lau koilarakada).
- Alkohol naturalean 15 egun beratu. 20-30 ttanta infusio batekin edo iturriko urarekin.
- Likuadoran egindako zukua.
- Pikorrak eta txerri manteka. Kanpotik emateko.

Tratamentua: (urria-azaroan) 3 astetan egunero 3 aldiz; 2 astetan, egunero 2 aldiz, aste batean egunean behin. Udaberrian errepikatu.



PASMO BELARRA (*Anagallis arvensis*):

Pasmo-belarra. Badira lore gorrikoak eta urdinekoak ere. Infekzio klase guztiak sendatzeko oso lagungarria gertatzen da, zaurien kasuan ere bai. Baina bada ohar garrantzitsu bat kasu honetan: dosiarekin kontu handia izan behar da, gehiegikeriak ondorio larriak ekar ditzake eta. 3 gr. zukutik gora ez da hartu behar glukisido hemolitikoak ditu eta.

- Eztula eta arnasbideetako gaitzak sendatzeko. Infusio arina: 15-20 gr./litroko.
- Zauri, erredura, ultzerak: 40 gr. Landare freskoa alkoholetan beratua, 2 astez, gero iragazi eta kanpotik eman.



BERBENA BELARRA (*Verbena officinalis*):

Belar sakratua aspaldidanik eta gurean ere aski errespetatua da. Hain ezaguna den berbenak erabilera asko izan dezake. Sinusitisaren kasuan erabili ohi da, baina hepatitis eta gibel gaixotasunentzat ere oso eraginkorra da, giltzurrunentzat ere ona, pixa bideak garbitzen ditu eta.

- Infusioan hartu daiteke, 20/30 gr. litro bat

uretan egosiz. Honetaz gain, proportzio berean erabiliak, odola garbitzen duela diote eta erreuma, larruazaleko gaixotasun eta barearentzat ona da.

- Enplastoak egin daitezke, ozpinetan ongi egosita, artritita, neuralgia, ziatika eta lumbago kasuetan.
- Berbena ardoa: Litro ardo beltzean landarea (100 gr.) bi egunez beratzen eduki, iragazi eta otorduetan txikito bat hartuaz anemia kasuentzat gomendatua dago.



OSINA (Urtica dioica):

Nork ez du Aranon osinik bere baratz eta belasoroan! Bi mota daude: osin handia eta osin beltza. Landare hau oso ona da gure osasunerako:

Organismoaren orekari eustea da bere lanik garrantzitsuenak: odola, sabela, hesteak, birrikak eta giltzurrunak bereziki.

Horretaz gain, beste arazo batzuetarako ere erabil daiteke.

- Odol zirkulazioa hobetzeko eta bizkortzeko: hemorroide odoltsuak, barruko nahiz kanpoko odoljarioak, odol askoko hilekoak, anemia kasuetan 8 mineralak berritzeko, larruazaleko kasuetarako, nahiz eta kronikoak izan... Kanporako erabili behar izanez gero, egin zukua. Horretarako, hartu osin eskukada bat, eta txiki-txiki egin. Ondoren, ahalik eta zuku gehiena bildu oihala edo gaza txiki batean. Horrekin ondo garbitu; eta sudurrean odola izanez gero, gaza bat busti eta zuloetatik sartu. Edateko izanez gero, ur hotzetan jarri bezperatik (EZ EGOSI) eta 3 edo 4 aldiz egunean edan basokada bat.
- Diabeteserako: Osinak odoleko azukre kantitatea jaisten du.
- Erreumarako, okerduretarako, bihurrituetarako, ziatikarako, lumbagorako...: landare eskukada bat hartu, eta ondorez sumatzen den tokian ondo igurtzi. Gero, dena ondo bildu estalki batekin. Berotasun horrek odola mugiarazten du. Animalientzat ere erabiltzen da. Izan ere, erreuma duten txakurrei osin igurtziak ematen zaizkie mina duten tokian.
- Ilea ez erortzeko, zoldarako eta ile ahulerako: xanpua edo erromeroarekin naha-

sitako beratzea egin daiteke osinarekin. Bestela, ileko xaboia osin urarekin kendu.

- Larruazalerako: ekzemak, herpesak, pikorrak eta abar izanez gero, infusioa egin eta gaza batekin garbitu. Etxeetan egiten diren larruazalerako hainbat kremak osina dute.

Osina jangarria dugu, modu askotara, gainera: beste hainbat barazkirekin nahasita, espinaka moduan gatza eta olioarekin. Tortillan jan behar izanez gero, lehenago segundo batzuk egosi behar da. Ura irakiten dagoenean, bertara bota; eta eskaldatu ondoren atera. Hori egin ostean, tortilla arrunt bat egingo dugu. Jateko, hartu ahalik eta hosto goxoena, ederrena eta gazteenak. A eta C bitaminez gain, burdina eta fosforoa dauzka.



Patas

Ondoren, Hernaniko Antonio Erdozia "Patas" kuranderoari ikasitako ukendu baten errezeta azalduko dugu. Plazako Borda-ko Felixak erakutsi nahi izan digu, batez ere gaixotuta dauden zauriak garbitzeko dituen propietateengatik. Urteak daramatza Felixak ukendu hau egiten eta berak erakutsita Aranoko beste etxe askotan egiten da aspalditik. Orain, aukera duzue ikasi eta egiteko, ez baita batere zaila eta aldiz, izugarri ona baita zauriak sendatzeko. Egin proba!

7 osagaiak:

- Baso bat olio lodia
- Txinbo jaboia 1/3 bat
- Erretxina (xaboia halako bi)
- Argizaria (xaboia halako bi)
- Seboa (xaboia halako bi)
- 7 bat baratxuri ale eskuekin zurituak
- Pasma belarra (hatzaparka eder bat)

Nola prestatu:

Zartagi batean olio berotzen jarri orduko baratxuri aleak botako ditugu. Hauek erre gabe bota behar dira gainerakoak segida-segidan. Baratxuri aleak gorrituta eta gainerako guztia (belarra izan ezik) urtuta dagoenean, aurretik garbituta eta beren taparekin pronto izango ditugun kristalezko ontzi txikietara iragaziko dugu dena pasadore eta trapu txuri garbi baten laguntzarekin.

Ontziak tapatu gabe utziko ditugu hozten eta ukendua gogortuta dagoenean, itxi eta gainean noiz egina den jakiteko data markatuko dugu, ezabatzeko modurik ez dagoen eran.

Ukendu honek, esan bezala, gaixotutako zauriak garbi-garbi egiten ditu, barruko zikinkeria xurgatu eta kanpora ateratzen baitu.

Ukenduari "patas" deitzen diogu, Hernaniko kuranderoari men eginez.

LARRA eta MASUSTAK:

Ba al da inor Aranon masustarik jan ez duena? Ez da posible. Masusta fruitua oso ona da C bitamina ugari duelako. Gainera, inosina gaia dute eta ez glukosa, beraz, diabetikoentzat ona dela esan nahi du.

Sasi edo lar mutur berriek tanino asko dute eta ahoko gaitzak eta hortzak sendotzeko oso onak dira. Xamur-xamurrak omen dira jateko.

- Kakalea edo beherakoa mozteko: 100gr. litroko egosi eta eztea erantsi.
- Infusio bera erabil daiteke, leukorrea, ulterak eta almorranentzat (ureztatu eta bainuak eginez).

Gure arbasoek utzitako jakinduria honetatik edan eta dasta dezagun guk ere, hori bai, hobe ikastaroren bat egitea, badaezpada ere!. ● **Aranxa Ansa**

Txipiroi krepeak eta sagar tarta

Jarraian ikusiko dituzun errezeta hauek Lourdes Legarretak eginak dira. Aranoarra da Lourdes, eta 30 urte ditu. Sukaldaritza ikasi zuen eta Hernaniko Errioguarda jatetxean dabil lanean azken aspaldian. Gaztea izanagatik odolean darama sukaldaritza eta... errezetak ere, dudarik ez izan, primerakoak izango dira! Horratx.

Txipiroi krepeak

Oblearen osagaiak:

- 250 ml esnia
- 2 arraultza
- 100 gr ogirina
- Gatza eta olio

Txarro batian, osagai guzik bati-tu, batidora batekin. Zartai txiki bat olioarekin sutan jarri eta olio berotzian, zartaitik olio kendu eta oblearen likidua bota eta berriz sobratzen den likido txarro hustu (bestela oblea lodiegia atetzen da). 20-30 segunduz eduki eta kuajaturten denian oblea platera bate ate. Likido guzia bukatu arte jarraitu.

Masaren osagaiak:

- ½ txipiroi - 100 gr. mantekila - 120 gr. ogirina
- Litro 1 esne - Baso erdi tomate saltsa - Gatza

Txipiroiak garbitu eta zartai batian in. Atetzen zaion likidua jaso, txipiroi saltsa iteko.

Txipiroiak inak daudenian txiki-txiki in, labanakin edo trituratorakin.

Kazuela batean, mantekila jarri sutan. Urtutzian ogirina bota eta dena ongi nahasi barila batekin, gero esne beroa bota piskana (ez du litro osua beharko) eta ongi nahasi. Txipiroiak eta tomatia bota, gatzean probatu eta nahasiz eduki irakiten hasi arte. Bukatzeko fuente bate atera eta hoztutzen utzi.

Saltsaren osagaiak:

- 3 tipula - 2 piper berde - 2 batzuri ale
- Tomate baso 1 - Txipiroi saltsa - 1/2 baso ardo beltza
- Txipiroi tinta - Gatza

Tipula eta piperra puskatu eta batzuriakin potxatzen jarri kazuela batian. Hau potxatu denian, tomatia eta ardua bota eta irakiten euki pixka bat, eta gero txipiroi saltsa eta ur pixka bat bota eta irakin beste hamar bat minutuz. Bukatzeko txipiroi tinta nahastu, trituru eta pasadore batetik pasatu.

Krepeak egiteko, oblea mahai ganean zabaldu, masa erdin jarri eta bildu. Geo frijitu.



Sagar tarta

Basearen osagaiak:

- 75 gr. mantekila
- 125 gr. ogirina
- Gatz pixkat
- ¼ baso ur

Ontzi batean ogirina, mantekila, gatz eta ura jarri eta eskuekin oratu, beharrezkoa bada ogirin gehio bota. Ordu erdi bat hozkailun utzi trapu busti batekin tapatuta reposatzen. Gero rodillo batekin zabaldu eta tartaren ontzia forratu, honek ganean aluminiozko papera jarri eta ganean garbantzuk ez arratzeko. Aldez aurretik berotutako labian sartu 175°tan 30 minutuz.

Krema pasteleran osagaiak:

- 1/2 l esne
- 4 gorringo
- 125 gr. azukre
- 50 gr. ogirin

Kazuela batian gorringok azukriakin ongi nahasi barila batekin, gero ogirina nahasi eta azkenik esne beroa. Hau dena su bajaran eduki etengabe mugituz irakiten hasi arte. Sutik ate eta hoztutzen utzi pixkat.

Lehen egindako basean, krema pastelera bota eta honen ganean sagarra xerra finetan moztuta jarri. Labian sartu 160°tan 30 bat minutuz. Pixka bat hoztutzen denian albarikoke mermelada jarri ganean.

Baietz asmatu!

Aranon hitz asko galdu egin dira eta beste asko eta asko ia-ia ahaztu. Azken urteetako atzerakada txiki horri erantzuteko ariketa polit hau proposatzen dizuegu. Ea zenbat asmatzeko gai zareten!

1. Zer da kabela?

- a) Buru hezurra
- b) Saski eta miaxirien goikaldeko uzaia
- c) Garai bateko soinu-joleei laguntzeko erabiltzen zuten musika tresna
- d) Armiarma hanka luzea

2. Zer da akillamakua?

- a) Lurra lantzeko tresna
- b) Tonto samarra edo ergela denari deitzeko erabiltzen den hitza
- c) Armiarma hanka luzea
- d) Armiarma hanka luzea

3. Zer da zirikimiloa?

- a) Pertsona zirikatzailea
- b) Haize erauntsi haundiek sortzen duten zurrumbilao
- c) Gaixotasunak sendatzeko propietatea duen lorea
- d) Gaixotasunak sendatzeko propietatea duen lorea

4. Zer da eakurri?

- a) Irakurri
- b) Artoa aletu
- c) Kurriaren antzeko saltsa
- d) Kurriaren antzeko saltsa

5. Zer da ixtilla?

- a) Likidoren bat ixuritakoan gelditzen den putzu txikia
- b) Atea barrutik ixteko erabiltzen zen maratilla zaharra
- c) Lixkar gogorra
- d) Lixkar gogorra

6. Zer da zipitza?

- a) Programa informatiko batekin konprimitutako hitza
- b) Etxean taloarekin egindako pitza mota bat
- c) Deuseza, ezer ez
- d) Deuseza, ezer ez

7. Zer da aierria?

- a) Herri mina esateko balio duen espresioa
- b) Zerbait egiteko nahia edo irrika
- c) Etxean sentitzea
- d) Etxean sentitzea

8. Zer da ziribuztanka?

- a) Zilipurdika ibiltzeari esaten zaio
- b) Pertsona jasanezinari deitzeko modua
- c) Ez hanka eta ez buru izatea
- d) Ez hanka eta ez buru izatea

Soluzioak: 1) b 2) d 3) a 4) b 5) a 6) d 7) b 8) a

Esanahiak lotzen

Hitz bakoitza dagokion esanahiarekin lotu:

- a) Ur hotzez erria
- b) Teleta
- c) Afanaz
- d) Perlesiya
- e) Aienatu
- f) Ardailan
- g) Panparranttoni
- h) Xerbeldu
- i) Ero saltua
- j) Kurajiosa
- k) Peskiza
- l) Omotu
- m) Terrententenka
- n) Mintxuriya
- o) Zinkurika
- p) Petrikesa
- q) Okeitten

- Nahigabea
- Esperantza
- Asko sufritutakua
- Arraka erori
- Tartamudoa
- Fruta usteltzen hasi da
- Indarka, borrokan ibili
- Harrokeriz
- Zuhaitzak fruitua emateari uztea
- Alde egin
- Jatekoa pixkat egin
- Amona mantangorria
- Ohikoa ez dena egitea
- Adoretsua
- Bi sexu dituen (hermafrodita)
- Antsika
- Elbarria

a) Ur hotzez erria = asko sufritutakua
 b) Teleta = tartamudoa
 c) Afanaz = harrokeriz
 d) Perlesiya = elbarria
 e) Aienatu = alde egin
 f) Ardailan = indarka, borrokan ibili
 g) Panparranttoni = amona mantangorria
 h) Xerbeldu = jatekoa pixkat egin
 i) Ero saltua = ohikoa ez dena egitea
 j) Kurajiosa = adoretsua
 k) Peskiza = esperantza
 l) Omotu = fruta usteltzen hasi da
 m) Terrententenka = arraka erori
 n) Mintxuriya = nahigabea
 o) Zinkurika = antsika
 p) Petrikesa = bi sexu dituen (hermafrodita)
 q) Okeitten = zuhaitzak fruitua emateari uztea

Xelebrekeriak

ARANON GERTATUAK:

Egun batian mutiko bat denda juan zen txiklia eroste ta jaten hasi zenian zea konturatu; kadukatua zola! Dendariari esan zion:

– Aizu, hau kadukatua do!

Ta bestiak ala kontestatu zion:

– Ba bakik ze in! Jan zak auro!

Beste egun batian, beste mutiko bat San Roke ermitan aurretik pasa da motuakin ta “aitaren” egiteko ohitura zuenez, egin eta, segituan aurreko errueda pintxatu! berriz herrira etorri da eta pasatakua kontatzen ari zen tabernan, ta batek hala esan zion:

– Hoi pasa zak “aitaren” ittiagatik!

Eta bazter batetik atton bat aitzen ari zen dena eta hala erantzun zion:

– Ixlik eon hai! Ez bazin “aitaren” in bi erruedak pintxatuko hittun!

Letra zopa

Aurkitu Aranoko 13 etxe eta baserriren izenak. Kontuz!!! Norabide guztietan daude!

C	P	G	S	A	N	T	S	O	S	O	J	E
U	S	T	A	K	S	A	C	T	I	A	I	N
G	O	Z	K	E	N	E	A	E	R	S	G	A
B	L	L	H	X	A	R	R	R	E	I	Q	Z
E	N	L	C	M	T	R	A	R	K	Z	B	T
R	M	A	A	E	O	N	O	I	H	J	J	I
D	H	V	T	T	B	N	X	L	M	T	X	D
O	Q	X	Z	I	E	T	H	V	G	Z	J	Y
S	E	I	D	C	U	Y	X	I	I	R	Z	G
T	L	E	M	A	R	T	I	T	X	I	K	I
A	U	A	X	O	B	T	L	H	L	M	O	B
N	A	T	T	G	Q	I	R	E	L	L	E	T
K	I	J	G	F	P	E	R	U	T	X	O	H

SOLUZIOAK: HORIZONTALEAN: Antsoso, Askatsu, Gozkene, Martitxiki, Telleri eta Perutxo. ZUTIKIA: Berdosta eta Enazti. ZEHAARRA: Arretxe, Aliztorre, Arranbide, Serone, Itxautxiki

7 aldeak aurkitu

Ea 7 aldeak airkitzen dituzun.





Teilatuak lekuko

Zuri beltzeko teilatuetan ikusi daiteke iragana; beltza eta iluna dirudi argazkian. Hotza izango zen kanpoko giroa; goibela eguna. Sutondoan babestuko ziren orduko bizilagunak, gaua ateetara erortzean. Egunez, lana izango zen inguruetan. Bai, egin beharko lan! Bizimodua ez zien erraza margotu inork, eta zaildu ziren gogotik haien eskuak! Leial eta sinistun izan ziren orduko ohituretan, eta egindakoak emaitzak eman zituela ikusita joango ote ziren...!

Gaur buztin koloreak gordetzen du orduko teilatuek igaro zuten nekea. Koloreak jasotzen dituzte gure begi-niniek, haiek usaindu ez zituzten usainak atzeman... baina orduko zentzuak ere ez dira apaldu! Orain ere badira hezetasuna eta hotza gordetzen dituzten harri bustiak, orain ere badira lanean amorratzen bizi diren lagunak. Tximinietako keek sutondoan babesten diren familien kontakizuna agerian uzten dute...

Orain ere, herria maitatzen dutelako entzuten dira haien algarak, haien hizketa eta negarrak. Bai, entzuten dira haien marmarrak ere... Bizirik gaudelako entzuten da Aranoren oihartzuna inguruko mendietan... Bizirik gaudelako segituko dugu, **Miaxiria**, etorkizuna eraikitzeko ilusioz betetzen.

Zuri beltzean bizi izan zirenek eta gaur koloretan bizi garenok bete dugu aranoarron **Miaxiria**.